

## Arkupeak

Jubilatuen besta, urtearen ondar besta hilabete hunen 19-an ospatuko da eta ez 15-ean lenago erran den bezala. Hemen agertuko dut egun hortako egitaraua: 11-etan Meza Elizondoko Parrokian aurtan hil diren lagunen omenetan. Mezan Amaia Zubiria kantariak, Eguberriko abestiak erakutsiko ditu eta Meza ondoren bere kanta bereziak erakutsiko ditu. Gero urte zahar hunerri buruz, hitzaldi bat egingen dute eta bai datörren urteko egutegiaren aurkezpena. Elizondoko ospakizunak egin ondoren, autobusetan denak Doneztebera.

13,30etan Bazkaria Bordatxo Dantza-lekuan, Argedasko Jaretxe Modernoaren eskutik.

Bazkaria: Fritoak - Langosti-noak - Arrain zopa - Rape al-mejekin - Umerria entsaladarekin - Champagne - Tarta helatuarekin - Ardoa - Ura - Kafea Kopak.

16,30'etatik 19,45 raño, «Amalur» Taldearekin dantzaldia. 20-etan Autobusen irteera etxe-



runtz.

Erran bezela hilabete hunen 16-ean, gaur, ospatuko da Do-

nezteben, Euskal Kanta Txapelketaren Finala. Eginak dira kantaldiak Burlatan eta Leitzaan eta orain hoberenak berexirik, Azken Saioa ospatuko da Donezteben. Txapelketa hau nafartarren arteko Lehiaketa da eta hemen erakutsiko dute gure gazteak beren ahalmenak eta erran dezadan ere Euskal Kantu Txapelketa hau garrantzi handikoa dela eta gure gazteen zaletasuna hortxe nabarmenduko dela. Euskal Kantu Txapelketaren bidez piztu da diela nagartarren artean euskal zaletasuna. Gure goresmenak Txapelketaren antolatzaileeri.

□ □ □

Kantuz sortu naiz eta kantuz nahi bizi, kantuz igortzen ditut nik penak ihesi, kantuz izan dudano zerbait irabazi, kantuz gostura ditut guziak iretsi: kantuz ez dute beraz hiltzea merezi?

M. Izeta

## Nafarroako Kantu Txapelketaren finala Donezteben

Nafarroako Kantu Txapelketaren finala gaur ospatuko da Doneztebeko Bordatxo dantzalekuan. Arratsaldeko 4,30etan hasiko da, Euskal Kantuzaleen Elkartea antolatzen duen saio nagusi hau. Bertan, denetara hogie partehartzaile arituko dira taldetan, bikotetan eta bakarlarietan banaturik. Beraz, hogie kanturik (zahar naiz berri, ezagun naiz ezezagun) entzuteko aukera izanen da.

Kanporaketa saioak Burlatan eta Leitzaan arrakasta handia izan zuten eta finalan parte hartuko dutenak epaimahaiak hala erabakitako saikatu dira. Kantari afizionatuak Baztan, Malerreka, Bortzirri, Leitza, Sakana, Lekunberri, Aezkoa Erroiberri eta Iruñerrikoak dira, eta dena den, 15 urte goitikoak, helduendako txapelketa iza-

■ Bertan 20 partehartzaile arituko dira eta denetara ehun lagun parte hartuko dute musikari eta kantari bezala

ki. Osotara 100 baino gehiago izango dira, kantari eta musikari artean, Bordatxoko oholtzara igotzeko direnak.

Entzulegoak bere saria emanen du kantaldia bukatzerakoan botuaren bitartez. Hau da, sarrerak gorde eta gibelaldean partehartzaile bati dagokio: zenbakia idat-

ziko du, bere iritziz onena izan denaren zenbakia.

Gero botua eman, zebaketa egin eta botu gehien eskuratzen dituen horrexek eramane du entzulegoaren saria. Epaimahaiak bestalde, deliberatuko du nor joanen den Nafarroaren izenean Euskal Herriko Txapelketa. Datorren urtean, ekainean, Gasteizen iraganen dena. Hiru ordezkari herrialde bakoitzeko.

Hauexek ditugu epaimahai: Koldo Pastor musikaria, Fermín Iriarte abesbatz zuzendaria, Amaia Zubiria kantaria, eta Maite Idirin abeslaria. Sarrerak salgai bertan izanen dira, 400 pezetetan helduendako eta 300 haurrentzako. Nafarroako Gobernuak eta Caja Ruralek babesten dute txapelketa.

## M. Molho ta euskara

Maurice Molho Sorbona'ko Ikastetxe Nagusiko irakasleak maite zuen euskara. Constantinopla'n (Turkia), 1922'garren urtean jaio zen. Berez Judu'tarra genuen. Aurtan il da Paris'en (Ekainaren 17).

Gaztea zelarik (1955), Gustave Gillaume Sorbona'ko irakasle ospetsuaren ikastarora joaten zen. Irakasle onek, linguistika jorrazteko garaian, euskaraari garrantzi handia ematen zion. Gustave Gillaume'k euskararen giltza batzuek arkitu zituen, linguistika zabalaren jakintza aunitz aberastutzen zutenak. Euskararen jokabideak ulertzen, Lacombe euskalzale linguistak lagundu zion. Gustave Gillaume'ri, onexek gauak ematen zizkion, euskal aditzaire buruz bere ikerketak egiteko.

Maurice Molho'k Euskalerrria, guda andian (1944) ezagutu zuen. Paris'ko konsul Espainiar'ak, irakasle onen aitari, lenbailen alde egiteko erran zion, baita espainol txartela eman. Iruñia'ra etorrita Barzelona'ko Ikastetxe Nagusian asi zen ikasten. «Filologia hispánica» mailan, doktordua egin zuen (1954), Jaka'ko Fueroari buruz ain zuzen. Casimiro Saralegi'k eta Goñi Gaztanbide apez jaunak aunitz lagundu zuten. Auei, esker beroenak emateko agintzen zidan beti.

Orrela, Jaka'ko Fueroen ikerketa ta lan handia, gure iri aunitzetako fueroen oñarri ta abe nagusia, Constantinopla'n jaiotako judutar batek egin zuen.

Gero Sorbona'ko irakaslea izendatu zuten. An antola zuen bertze doktordua nagusia espainiar aditzaire buruz (1971), gero Gredos irarkolan (1975) argitaratua.

Paris'en Teologia ikasten nengoela, Sorbona'n euskarari buruz ikastaroren bat ba ote zeukaten jakitea bururatu zitzaidan. «Rue des Ecoles»eko lantegian atea jo nuen. Idazkari bat atera zitzaidan. Egin nion nere galdera. «Ortaz ez daukagu ezertxoere, baiño emen dago irakasle bat, zerbait jakitekotan argitasuna eman dezaizukena», erran zidan. Andik gutxira Maurice Molho irakaslea agertu zen eta nere galdera egin nion. «Etorri zaitez nere ikastarora, zer dan linguistika ikasiko duzu eta zuk neri euskara iraskatsiko didazu», erantzun zidan (1973'garren urteko Urrian). Maiz aipatzen zuan egun ura: «Bein joan nintzen gela artara eta an arkitu ninduzun; ori gauza arrigarria».

Maurice Molho irakaslearekin ordutxe asi nintzen lanean. «Lenda-bizi euskarak ba ote daukan aditza-



rik jakin bearko dugu», erran zidan bein. Andik gutxira, euskal aditzaire buruz doktordua egiten asi ginen. Benetan doktordua berexia.

Ikaskaiak Sorbona'n artzen nintuen eta nere lanaren azterketak egiteko oporretan, Jean Claude Chevalier bertze irakalearen etxean biltzen giñen, Barbiron delako errian. Goizian goiz jeiki ta lanean asten giñem irurrok, gaba ondo sartu arte. Otorduak, gure atsedean bakarria ziren, eskerrak Maria Luisa'ri, Chevalier irakaslearen emazteari. Linguistika gaietan J.C. Chevalier Sorbonako irakaslea da, Molho'ren eskubia. Orduak joan eta orduak etorri gure eztabaiden gaiak sortzen ziren: NOR-NORI-NORK'en su-traiak, euskal aditzaren ardatza, len garaietan NORK'en igesaldia, NOR lerroaren esanaia. Oiek ziren Molho'ren iker lan berexiak. Bortz aldiz beartu ninduten nere lana zuzentzerara. Zoraturik zeuden euskal aditzaren jokaerarekin. Elkar egindako lanarekin, euskal aditzaire buruz nere doktordua lortu nuen 1983'garren urtean, Epailaren 22'an. Egun be-rean, Jon Oñatibia adiskide miñari doktordua (postumo) eman zitzaion.

M. Molho eta Chevalier irakasleak, aditzaire buruz egindako ikerketarekin garrantzi handiko idazlan bat idatzi zuten («Sur una étrangeté du verbe basque», «Lanmguaes» aldizkarian, 82 zen., Ekaina 1986, 53-65 or.).

Elbira Zipitria'ri, Euskalerrria'n egin zitzaion omenaldian idazlana argitaratzeko bidali zuten, batez ere «NORK'en igesia» goraipatzeko.

Nere ustez, Lacombe'k Gillaume'kin izan zituen arremanak, berdin berdiñak euki nituen Molho irakaslearekin. Amaitzean esan bearra: euskal aditzaire zor ederrak ditu Maurice Molho'rekin.

Latxaga

### Berri ona

## Etortzekoa bazera, etorri!

«Zu al zera etortzekoa» (Mt. 11,2"11)

**G**ARAI batean umeek bakarrik galdetzen zutela uste genuen. Umeak galdera asko egiten dituzte. Umeak ez daki ezer eta jakiteko gogoa agertzen du. Askotan kuriosidadea izaten da umeena.

Orain, ordea, edonork galdetzen du. Adiñekoak ere galdezka berrundatzen ditut. Agian, leen ikasi ez zutena edo ikasteko aukerarik izan ez zutena... orain ikasi nai dute.

Irrati' telebistakoek ere galdetu egiten dute. Bada azkenurteotan ezaguna egin den Euskadi Irratiko periodista bat, erratan duena: «Guk galderak egiten ditugu. Guk galdetzen besterik ez dakigu».

Galderak erantzuna eskatzen du. Askotan, ordea, erantzunik ez daukagu. Mutu eta isil gelditzen gera zenbait galdera egiten dizkigutenean. Eta erantzunik ez dagoenentzat, galdegillea beraurduri jartzen da. Galderak jakin miña erran nai du. Ezjakinak apaltasunez galdetzen du. Dakienak, berriz, arrokeriz eta adarra jotzeko galdetzen du. Kontuz!

Basamaortuko predikari famatu ura ere, Joan alegia, ezezagun ziur espero zuen salbatzailea Jesus ura izango ote zen. Orra or Joan fede krisian.

Sinestadun agertzen zen Joan, orra orfede makal eta txepel.

Zer gertatzen zaio Joan'ri jarraitzaileak Jesus'enganabidaltzeko? Sinesmena orrelakoa da: gaur indartsu eta biar ezerez. Fedean kili'kolo dabilenak, nola Salbatzailearen bideakurratu eta ireki?

Gaur ere anitz dira fede mailan koloka dabiltenak. Adiñekoak eta gazteak. Apezak eta erlijioso' erlijiosak. Guztiok gailtza eziñean eta dunbuluka. Guretariko asko ari zaio easalbazioa izango duen ala ez Jainkoari galdezka.

Eta Jainkoaren erantzuna beti argi eta garbi ematen da. «Erran Joan'ri entzuten eta ikusten duzue-na». Jainkoaren erantzunabete pertsonengan ematen da. Jainkoa pertsonengan ematen daezagutze-ra. Zergatik ez dugu pertsona oro bere duintasunean onartzen?

Urkoaren barkamena artzen duenak, Jaunaren Itza entzutenduenak, itxaropenaren mezulari denak eta pobrea aintzakotzatartzen duenak badaki etortzekoa den Jauna nor den.

Artzalluz'tar Joxemari

## Campionen ipuiak komikiratuak

Arturo Campion euskaltegiaren 20. urteamuga ospatzeko, 1992an, best zenbait gauzen artean euskaltegiari izana ematen dion iruñear idazlearen ipuiak euskaraturik komikian argitaratzea izan zen asmoa. Honela ezagutaraz genezake, neurri xumean bederen, urte luzez baztertuta izan den idazlea. Eta lanari ekin eta lehen komikia atera genuen: Erraondo. «el ultimo tamborilero de Erraondo», Izaga inguruko emigrantea protagonista, eta Iruñerrian euskararen atzerakada gai nagusia.

Komiki honek, Habanan, Palma Real Saria jaso zuen 1994an, Latinoamerikako ixtorietzaileen elkarteak argitalpen hoberenari emanik.

Bigarren komikia oraintxe argitaratu dugu. Hay dugu: Pedro Mari. Iruñetik urrunxeago joan gara honetan Baztan aldera, Erratzura hain zuzen, bertakoa baitugu Pedro Mari, gaia Berriz, Nafarroako foruak, Armadara ez joateko dugu/zuten eskubidea.

Lehen komikiaren egilea Asisko



Urmeneta genuen, Pedro Marirena Marko Armepch; Behenafarroako Haltsun bizi den alsaziarra, orain gutxi arte frantsesez hainbat komikia eman dituen, eta orain, euskara ikasi eta Argia eta Naphartheid-en, besteak beste ari zaiguna.